

telebista ♦ irratia

Ttipi-ttapa Telebistak bide berriak bilatu asmo ditu

Nafarroa iparraldeko telebistak bihartik aurrera ekingo dio denboraldi berriari

Lore Agirrezabal / Donostia

Egunean pare bat orduko programazioa finkatu nahi du Ttipi-ttapak. Datozen hilabeteetan nekazari eskualdeen garapenari buruzko saio bat, gazteentzako saio bat eta sukaldaritzako beste bat egin nahi dituzte. Horrez gain, Topagunea elkarteko kide izanik beste proiektu batzuk ere badituzte.

TTIPI-TTAPA telebistak bi urte bete zituen ekainean, eta bihar hasiko du denboraldi berria. Hirugarren urtea betetzerako, beraz, zenbait aladaketa egiteko asmoa dute. Oraingoan, albistegietan berrikuntza batzuk sartuz hasiko dira, gero *Jokoa Jolas* eta *Herriz herri* saioekin jarraituko dute, baina hiru hilabeteren buruan beste saio batzuekin hasi nahi dute eta aurpegi berriak sartu. Gazteendako saio bat, nekazari lurraldeen garapenari buruzko bat, sukaldaritzakoa eta ikasleek eginak sartzeko asmoa dute.

Ttipi-ttapako Xabier Erkiziak azaldu digunez, garapen agentziek (Europako egitura fondoetatik datozenek) eskualdean egiten duten lana ikusarazteko saioak bultzatzen dituzte. Alde batetik Ikas-Telebista legoke, eskola eta komunikabideak uztartzen dituen; eta besteetik nekazari munduko lana-



MIEKL SAIZ

Hemendik hiru hilabetera, saio eta aurpegi berriak izanen ditu Ttipi-ttapak.

ren garapenarena islatuko duen Garalur. Hastera doazen denboraldi berrian egunerokotasuna finkatu nahi dute. Orain arte astelehen, asteazken eta ostiraletako saioak zeuden finkatuta; hemendik aurrera, egunean pare bat orduko programazioa finkatu asmo dute.

Erkiziak esan digunez, urte hauetan pixkanaka lan egiteko modu bat finkatu dute: «Hirugarren urtea egitera goaz eta bide berriak bilatu nahi ditugu», adierazi digu.

Digitalizazioa

Ttipi-ttapa, hastapenetik sistema digital profesionalarekin hasi zen lanean. Gainera, Euskarazko Herri Komunikabideen Topagune-ko partaide da, eta Topaguneak berak dituen proiektuek ere berrikuntza asko ekarriko dizkietela adierazi digute. Izan ere, Topaguneak *on line* zerbitzu bat jarri nahi du martxan, herri aldizkarien atari nagusi bat osatu, eta dokumentazio zerbitzua abian jarri. Denen

erronka programazioa zabaltzea da, elkarlanaz baliatuta. Hala ere, herri-telebisten araudia finkatu gabe dago oraindik, eta, Xabier Erkiziaren hitzetan, «horrek nahiko egoera prekarioan uzten ditu eskualdeetako edo herrietako telebistak».

Dena den, Bortzirriak, Malerreka eta Bertizarana, inguruko herritarrek, beraientzat egindako eskaintza berriei gozatzeko aukera izango dute bihartik aurrera.

Errege-kobrari buruzko dokumentalarekin agur

■ *Julio Salinasek hamar astez aurkeztu duen dokumental sorta gaur amaituko da*

Erredakzioa / Donostia

ETB-2ko *National Geographic* saioak gaur esango digu agur. errege-kobrari buruzko atalarekin. Julio Salinas futbolariak aurkeztu duen dokumental saioak arrakasta handia lortu du, bertan emititzen diren irudi ikusga-

rrirei esker. Gaurko atalaren protagonista den sugeak bost metro ere izan dezake, urtean lau-bost aldiz aldatzen zaio azala eta elefante bat hiltzeko gai da, kosk eginda. Izan ere, suge honen koskada pozoitsuak 100 gizaki hiltzeko adinako indarra du.



EGUNKARIA

Errege-kobrak beti sortu izan du lilura berezi bat.

laburrean

Clemente 'El derby' saioko gonbidatua

Gaur ETB2an emango den kirol saioan Javier Clemente izango da gonbidatu berezia. Talde txuri-urdinak hasi berri den denboraldiaren aurrean zer nola jo jarrera duen azalduko du entrenatzaileak. Horrez gain, asteburuko partidua garrantzitsuenei errebasoa emango diete Jose Ituarte, Joaquin Urio Velazquez eta Mikel Olazabalek.

Boris Izaguirrek saioa estreinatuko du

Telecinco telebista kateak saio berria estreinatuko du gaur gauean: *El anfitrión*. Boris Izaguirrek aurkeztuta, elkarriketari tartea eskaini nahi dio saioak. Dena dela, elkarriketa berezi samarrak izango dira emango dituztenak. Izan ere, eszenatokia etxebizitza bat da, eta elkarriketak etxeko edozein txokotan egingo ditu Borisek, baita duxan ere. *Cronicas marcianas* saioan ezagutze-
ra eman zen aurkezleak «sorpresarik» ez dela faltan izango ziurtatu du.

'Ander eta konpainia' telesaila gaur ere

Euskal Telebistako telesailaren bigarren atala ikusteko aukera izango da gaur. Anderri bezero berezi bat iritsiko zaio: margolari batek banketxeko zuzendaria salatzen du bere kuadro bat alderantziz jarri duelako. Margolana simetrikoa da, baina, hala ere, Anderrek defendatzea aukeratu du. Azkenean margolaria banketxeko zuzendariarekin akordio ekonomiko batera iritsiko da eta salaketa kenduko du.

Daniel Arranz 'El punto' saioan izango da

Biharko saioan Daniel Arranz Bizkaiko gobernadore zibil ohia elkarriketatuko dute. Arranz sozialista da, eta laguna zuen Juan Maria Jauregi, uztaillean ETak hil zuen Gipuzkoako gobernadore zibil ohia.